

UDAL TURISMO INFORMAZIO PUNTUAN ARITZEKO ETA BAZTANGO TURISMO ESKEINTZA GARATZEKO BAZTANGO UDALAK TURISMO ARLOAN TEKNIKARI ESPEZIALISTA KONTRATATUKO DU (6 hilabeterako, lanaldiaren %90an), AUKERAKETA PROZESUA HONAKO HAU IZANGO DELARIK:

BETEBEHARREKOAK:

- 2. Mailako Lanbide Heziketa, batxilergo titulua edo baliokidea.
- B1 mailako gida baimena.
- Adinez nagusia izatea.
- Euskara ezagutza (C1/EGA).
- NEZ-an lan eskatzaile gisa egotea (Bakarrik onartuko dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eginiko aurretiko hautaketan agertzen diren hautagaiak).
- Kontratu beharreko pertsonak kolektibo hauen artetik hautatuko dira (233/2012 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke toki entitateendako diru-laguntzak arautzen dituena eta 2260/2012 EBAZPENA, irailaren 25ekoa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 23ko 233/2012 Ebazpena aldatzen duena):

-50 urtetik gorakoak.

-30 urtetik beherakoak.

-Desgaitasunen bat duten pertsonak, gutxienez %33ko desgaitasuna dutela aitortzen duen ziurtagiri baten bidez egiaztatua.

-Luzaroko langabeak izan, hau da, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko agentzietan langabe gisa izena emana dutenak gutxienez hamabi hilabetez, kontratazioaren aurreko hemezortzi hilabetean.

KURRIKULUMAREN BAREMAZIOA (GEHIENEZ ERE 20 Puntu)

1.- FORMAKUNTZA (Gehienez ere 8 Puntu):

- Hostalaritza eta Turismo arloko Goi mailako lanbide heziketa titulua edota Turismo arloko diplomatu titulua: 3 puntu.
- Lanpostuarekin lotutako 50 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko puntu bat, administrazio publikoek antolatutakoak edota babestutakoak.
- Atzerriko hizkuntza ezagutza egiaztatuko duen ziurtagiri bakoitzeko puntu bat (gutienez B2 mailakoa)

2.- LAN ESPERIENTZIA (Gehienez ere 12 Puntu):

- Administrazio publikoetan turismo arloan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko: 2 puntu (gehienez ere 8 puntu).
- Entitate pribatu batean turismo informazio eta kudeaketa alorretan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko puntu bat (gehienez ere 4 puntu).
- Egiaztatutako esperientzia baloratzean, urte edo lanaldi osoa egiten ez duen aldiari proportzioan dagokiona emanen zaio.

3.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Deialdian parte hartzeko eskabideak Baztango Udaleko erregistroan aurkeztuko dira. Izangaiek kurrikuluma eta eskatutako tituluen egiaztagiriak aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera, bai eta lehiaketan baliarazi nahi dituzten merezimendu guztienak ere. **Epea: 2014ko martxoaren 25a.**
- Lan esperientzia egiaztatzeko bizi laboralaren fotokopia edota enpresa ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
- **EUSKARA:** titulua edo baliokidea aurkezten ez duten hautagaiek maila zehazteko azterketa bidez kreditatu beharko dute. **Euskara proba martxoaren 28an eginen da goizeko 9:00etan.**

EZAGUTZA TEKNIKOA EGIAZTATZEKO PROBA (Gehinez ere. 80 Puntu)

- Non: Baztango Udala
- Día: 2014/04/02
- Hora: 9.00 horas.
- Responsable: Epaimahaia.
- Edukia:
 - Baztango turismo eskeintza buruzko test moduko galderak (gehinez ere 30 puntu; guttienez 15 puntu eskatuko dira).
 - Proba praktikoa (gehinez ere 50 puntu; guttienez 25 puntu eskatuko dira). Hautagaiek Baztango turismo eskeintzaren inguruan kasu praktikoa bat garatu beharko dute (informazio eskaera bati erantzuna eman, turismo arloan proposamenak egin, e.a.)

Baztango informazio turistikoa:

-Baztango turismo gida.

https://docs.google.com/file/d/0B8MANSqr23i_SjFVTXBLZ1pEV1E/edit?pli=1

-Baztango mapa turistikoa

<http://www.consociobertiz.org/ftp/ayuntamientos/Baztango%20mapa.pdf>

-<http://www.baztangoudala.eu/es/turismo>

Harremanetarako telefonoa: 948 580 561/ 606 40 86 13 (Izaskun Abril).
baztan@cederna.es